


**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**PEÑA Y GOÑI 10**



**Egilea eta data: Francisco Urcola; 1924**

**Deskribapena**

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta sei goi oin dituen, bosgarrena zertxobait mantsardatua (begiratokien gaineko galeria izan ezik) eta seigarrena azpikoarekiko atzeraemana. Harlanduzko fatxada, hormigoizko begiratokia duena erdialdeko baotan, bosgarren oineraino (zati zertxobait atzeraemanean), galeria ireki gisa. Proiektu komuna Usandizaga 8rekin.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak, mantsardatuak, 5. oinean begiratokiaren gainean dagoen galeria salbu.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; elementu moldekatuak.
  - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.